

Izena: Pausoz Pauso elkarte Gaixotasun onkohematologikoa edo odoleko beste gaixotasunen bat duten pazienteei laguntzeko boluntario-sarea		
Posta-helbidea: Elkartearen egoitza Bizkaian Las Mercedes kalea 14 4c 48930 Areeta Getxo	Telefono-zenbakiak: 688 77 25 84 / 688 75 65 89 Aurrez aurreko arreta: Basurtoko AUO, Jado pabiloia, 4.solairua, 5.aretua (aurretiko hitzordua eskatuta)	
Logoa: 	Helbide elektronikoa: info@pausozpauso.org	QR kodea: 
	Webgunea: www.pausozpauso.org	
Nor diren: Proiektu honen ardatza da paziente onkohematologikoei laguntzea eta gaitzea gaixotasunaren fase desberdinei aurre egiteko, eta haiei zein euren senideei komunikaziorako eta laguntzarako gunea eta bitartekoak eskaintzea, euren bizi-kalitatea hobetzeko. Proiektuak topaketarako gunen baten faltagatik antzemandako beharrei erantzun nahi die; gunek erreferentzia, sostengu eta ahaldundze gisa balio behar du gaixotasun onkohematologikoa duten pertsonentzat, boluntarioen giza sare batean oinarrituta.		
Zein talderi zuzentzen zaizkion: Paziente onkohematologikoak eta odoleko beste gaixotasunen bat dutenak, baita euren senideak eta zaintzaileak ere.		
Zerbitzuak eta Programak: - Aurrez aurre egoten gara astelehen eta asteazkenetan Basurtoko ospitalean. - Telefono bidezko laguntza eta bidelaguntza pazienteei, senideei eta zaintzaileei. Ospitaleratutako pazienteari bisita egiten zaio, laguntzen zaio, bidelagun izaten zaio eta laguntza eskaintzen zaio, esaterako, izapideak edo ospitaleko tramiteak egiteko, eta behar duen informazioa bilatzeko. - Banakako laguntza pazienteari eta bere senideei/zaintzaileari (aurrez aurre/telefonoz, bideodeiaren bidez) - Laguntza-talde horizontalak, non prestakuntza- eta informazio-tailerrak ere ematen diren. - Pazienteentzako topaketak, mintegiak eta beraientzat interesgarriak diren gaiei buruzko jardunaldiak antolatzen ditugu. - Baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen laguntza psikologikoa bermatzeko, "laguntza-poltsa" bat dugu, zerbitzu hori estaltzen duena. - OSI BILBAO-BASURTOrekin lankidetzan aritzen den erakundea gara, hainbat modutan eta unetan. Humanizazio Batzordeko kide gara. Pazienteen beharrak ezagutzen ditugu eta gogotsu gaude osasun-ekosistemari ekarpena egiteko. (Euskadiko Plan Onkologiko Berrian parte hartzen duen elkarte) - Estatuko onkohematologia-elkarrekin lankidetzan aritzen gara. GEPACeko (Minbizia duten Pazienteen Espainiako Taldea) kide gara, 140 elkarte baino gehiago biltzen dituen, eta baita AELCLÉS-GRUPO Oren kide ere, onkohematologiako eta odoleko beste gaixotasun batzuetako 16 elkarte biltzen dituen. - Elkartasunez jokatu nahi dugu. Aktiboki laguntzen ditugu odola- eta hezur-muina-emateko kanpainak, ikerketa medikoa eta gizarte- eta osasun-arloko hainbat ekimen.		
Beste datu interesgarri batzuk: - Ospitalean topaketarako gunen fisiko bat sortzea, hurbiltasuna, laguntza eta bidelaguntza eskaintzeko - Pazienteak kontzientziatzea bizimodu osasungarria izatearen garrantziaz, euren osasuna hobetzen edo mantentzen laguntzeko. - Proiektuarekin konprometituta dagoen boluntario-sare egonkor bat sortu eta haren garapena bultzatzea. Jarduera-eremua: Euskal Herria		